



IRUN ⇄ HONDARRIBIA ⇄ HENDAYE

www.irunhondarribiahendaye.com



MUGAKO IRAGANAREN AZTARNAK

IRUN



BIDASOA IBAIKO ZUBIAK

Irunek historiaz kargatutako 6 zubi dauzka, hiria inguruko herriein lotzen dutenak (Bera, Biriatu, Hendaiia eta Urruña). Behobia eta Abenida zubiak, zehazki, errefuxiatuen ihesbide izan ziren Espainiako gerra zibilean, eta gertakari horien omenezko plakak dauzkate instalatuta. Horiez gainera, Bidasoan erromatarren garaiko egurrezko zubi baten hondarrak ere aurkitu ziren. Oiaso Erromatar Museoa dauzkate gordeta.

FAISAIEN UHARTEKO KONDOMINIOA

Faisaien uhartea edo Konpantzia uhartea Bidasoa ibaiaren erdian dago, Hendaiako Intzura auzoaren eta Irungo Behobia auzoaren artean. Munduko kondominiorik txikiena da, Espainia eta Frantzia direlarik lurraldearen jabeak. Uhartea txandaka administratzen dute ibaiaren alde bietako udalek, abuztutik urtarrilera Irunek eta otsailetik uztaileira Hendaiak. Uhartean gertakari historiko ugari izan dira, baina nabarmenena Pirinioetako Bake Hitzarmena izan zen, 1659an. Bertan, Pirinioak ezarri ziren bi herrialdeen arteko muga natural gisa, eta Maria Teresa infantaren eta Luis XIV.aren arteko ezkontza adostu zen, bi erresumen arteko bakealdi bati hasiera emateko.

ERLAITZ ETA SANTIAGOKO GAZTELUEN AURRIAK

Irunen zenbait gaztelu zaharren aurriak daude eta, horien artean, aipatzekoak dira Santiagoko eta Erlaitzeko gazteluak. Gaztelu Zahar izeneko gaztelua 1518an eraiki zuten Fernando Katolikoaren aginduz, Gaztelako muga frantsesen eta nafarren erasoetatik babesteko, eta 1539an eraitsi zuten, Karlos I.aren aginduz, etsaiak gazteluaz jabetu ez zitezten. Erlaitzeko gotorlekuari dagokionez, 1891n eraiki zen, Oiartzungo lubaki-lerroaren parte zen mendi baten tontorrean, Enderlatsa-Erlaitz defentsa-lerroan, eta horma batzuk zutik daude oraindik ere.

AIAKO HARRIKO BUNKERRAK

Espainiako gerra zibilean, borrokaldi latzak egin zituzten Errepublikaren aldekoek, Erlaitz eta Pagogañako gotorlekuetan babestuta, matxinoen tropa nafarren erasoan aurrean. Frankistek, inguruaz jabetu zirenean, metrailadoreentzako bunkerrak eraikiarazi zituzten mendi horietan, beldur baitziren errepublikanoek eta haien aliatuek Frantziatik lurraldea inbaditzen saia zitezkeela. Horietako batzuen hondarrak ikus daitezke oraindik ere Erlaitzen eta San Martzialen.

TRENBIDEAREN TUNELAK ENDARLATSAN ETA IBARLAN

Endarlatsako zubiaren inguruan, zenbait tunel daude, Irun eta Elizondo lotzen zituen trenbide zaharraren trazaduran. Handik gertu dago tren-geltoki zaharra ere, gaur egun Santiagotarrak arraun-elkarteak erabiltzen duena. Guztiak ere bisitatu daitezke Bidasoko Bide Berdea zeharkatuta (euraldietan kontuz ibiltzea gomendatzen da). Ibarlako bidexken aldean ere aurki daitezke mea kiskaltzeko Irugurutzetako labeetara materiala eramateko erabiltzen ziren trenbideen arrastokak.

HONDARRIBIA



JAIZKIBELGO MULTZO MEGALITIKOA

Jaizkibel mendiaren magalean, Burdin Aroaren aurreko eraikuntza megalitiko batzuk aurkitu dira. Bidasoaren bokaleko lehen biztanleek hileta-errituertarako gune gisa erabili zituzten lau milurteko, oraingo aroaren aurreko 4000. urtean hasita. Megalito horien artean daude Jaizkibel III eta Jaizkibel IV trikuharriak eta Jaizkibel II eta V harrespilak. Bertako hilobi gehienak kostatik gertuko harrizko babesgune batean egin ziren, gorpuak fetu posizioan eta lotuta lurperatu zituzten, eta ondoren gainean maskorrak pilatu.

ERDI AROKO HARRESIAK ETA HERRIA

Hondarribia Erdi Aroan fundatu zuten hiribildu gotortu gisa, 1203. urtean. Herrigunea inguratzeko hesi bat eraiki zuten, eta zenbait aldiz zabaldu zuten, mendeen joanean. XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran, bastioiak eta gotorlekua eraikitzeko lan handiak egin ziren, eta XVII.ean osatu ziren ilargi-erdiak eta kontraeskarpa. Egitura batzuk gaur eguneraino iritsi dira, hala nola Santa Maria eta San Nikolas ateak eta Erreginaren bastioia eta Santiago bastioia.

MARIA TERESA INFANTAREN ETA LUIS XIV.AREN ARTEKO EZKONTZA

1660ko ekainaren 3an, Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria elizan ahalorde bidez ezkondu ziren Maria Teresa Austriako infanta espainiarra eta Luis XIV.a Frantziako erregea (ez zen ezkontzan egon eta ordezkari batek jardun zuen haren partez) Ondoren, ekainaren 9an, ezkontza protokolaria egin zen Donibane Lohizunen, bertan zain baitzegoen Luis XIV.a, eta Espainia eta Frantziaren historiaren kapitulu berri bat hasi zen, Pirinioetako Hitzarmena sinatu ondoren. Eliza hartako sakristian egun hartan erabilitako arropak daude gordetan, bi herrialdeentzako hain garrantzitsua izan zen gertakari historiko haren oroigarri.

BALA ZULOAK ARMA PLAZAN

1638an, Hondarribia setiatu zuten, Pirinioetako Hitzarmenarekin amaituko zen Hogeita Hamar Urteko Gerran. Gaztelua egun Arma Plaza dagoen lekuan kokatua zegoen, eta Karlos V. enperadoreak erabakita, gotortua zegoen. Gaztelu hark 1200 kanoikada baino gehiago jaso zituen, baina ez zuten suntsitu, eta bataila hondarribiarrek irabazi zuten, 69 egunez eutsi ondoren. Gaztelua Karlos V.a paradorea da gaur egun, eta moskete eta kanoiz jaurtitako tiroen zulo ugari ditu fatxadan, gertakari haren erakusgarri.

GOIKO ERROTAKO MAKINERIA

Goiko Errota finka Jaizkibel mendiaren hego magalean dago, Jaitzuria eta Arkolla auzoen artean, eta XVIII. mendeko arkitektura tradizionalan altxatutako eraikin bat dago bertan. Garaua irintzeko errota bat zen, eta barruan oraindik ere gordeta daude arto aleak ehotzeko egurrezko egitura eta makineriaren gainerako elementuak.

HENDAYE



LURRAREN HISTORIA FLYSCHEAN

Urruña eta Hendaia arteko labarretan, Erlaitzeko bidean, flysch izeneko formazio geologikoa dago. Itsasotik ikusten da, eta ikerlan ugari egin dira hura aztertzeko, metatutako hondakinen geruzek gure planetaren historiako gertakari handiei buruzko informazioa ematen baitute. Eroritako meteoritoak, gertakari meteorologikoak, desagertutako espezieak... galdera handi horiek guztiek mundu mailako punta-puntako zientzialariak gurera erakartzen dituzte urtero.

SAN BIXINTXOKO GURUTZE MISTERIOTSUA

«Katedralen misterioa» liburuan, Fulcanelli alkimistak ezagutzera ematen du gurutze zikliko bat dagoela Hendaiaiko San Bixintxo elizaren ondoan. Gurutze hori hiru mailaren gainean jarrita dago XVII. mendetik, baina jatorriz zaharragoa da, hileritik eraman baitzuten hiriaren erdigunera. Bertan egon da zenbait mendez. Esanahi iluneko ikur kosmogonikoz estalia dago, eta askotariko interpretazio esoterikoak egin dira haren inguruan.

GAZTELU ZAHARREKO KANOIAK

Hondarribia Espainiako inperioaren lehorreko eta itsasoko defentsaren puntu garrantzitsua izan zen Erdi Aroaren bigarren erdian. Nabigazioa kontrolatzeko Espainiak eta Frantziak zituzten etengabeko liskarren ondorioz, gotorleku bat eraiki zen Hendaian gaur egun Gaztelu Zahar deritzan eremuan, Txingudiko badiaren ondoan, Frantziako erregea Luis XIII.aren aginduz. Fortifikazioaren aurrin artean, kanoi batera bat kontserbatu da. Bisitatzeko, frontoitik Beltzenia ibai-pasarelarantz jaitsi behar da.

ERORIEN MONUMENTUA

Lehen Mundu Gerran (1914-1918) hildako hendaiarren omenezko monumentua Gaztelu Zaharreko lorategietan dago, Pierre Loti kalearen amaieran. 1921ean eraiki zen Henry Martinet arkitekto paisajistak eta Louis Adamski udal-arkitektoak diseinatuta. Horma erdizirkular batek osatzen du; hari atxikita, bi hegal eraiki ziren alboetan Bigarren Mundu Gerraren (1939-1945) ondoren, izandako biktima berrien izenak idazteko. Eraikinaren aurrean Paul Ducuing-ek egindako brontzeko eskultura bat dago, «Frantzia azken hatsetan den borrokalari bati eusten».

ATLANTIKOKO HARRESIAREN BLOCKHAUS-A

Hitlerrek, Errusiaren kontrako ofentsibak porrot egin zuenean, Mendebaldeko frontea babesteko harresi hau eraikitzea erabaki zuen. Horretarako, itsasoa zaintzeko eta artilleria kokatzeko eraikinak 2 km-ko tarteeetan jarrita osatutako defentsa-lerro erraldoi bat eraiki zen, 1942a hasita, kosta atlantiko guztia hartuz, Holandatik Pirinioetara iritsi arte. Hendaia dago harresiaren hegoaldeko puntan. Defentsa-lan horren aurrak gaur egun ere ikusten dira, Urruña eta Hendaia kostaldetik lotzen dituen bidean.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.bidasoaturismo.com

www.hendaye-tourisme.fr

www.irun.org

www.hondarribia.eus

www.hendaye.fr